



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ene alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu”

2024ko ekainaren 30a  
Urteko 13. igandea (B)

### Markos 5, 21-43

Jesus aintziraren beste bazterrera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion ondora. Oraindik aintzira ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahozpezturik, otoi eta arren eskatzen zion: “Alaba hilzorian dut; zatoz hari eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi”. Harekin abiatu zen Jesus. Jende asko zihoakion ondoren, estuka eta bultzaka. Bazen han emakume bat, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoena. Hamaika sendagileren eskutan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusi buruz esaten zena entzunik, jendartean atzetik joan eta jantzia ukitu zion. Honela baitzioen berekiko: “Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz”. Une berean odol-jarioa gelditu egin zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean. Berehala antzeman zion Jesusek bere baitatik halako indar bat atera zitzaioela eta, jendartean itzulirik, galdetu zuen: Nork ukitu dit jantzia? Bere ikasleek erantzun zioten: Hainbeste jende estutzen zaituela ikusi eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu? Baina Jesus ingurura begira zegoen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dardar -ondo baitzekien zer gertatu zitzaion-, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Jesus honela mintzatu zitzaion: “Ene alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza”. Oraindik hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esatera: “Hil zaizu alaba. Zertarako eman neke gehiago Maisuari?” Baina Jesusek, hitz hauei kasurik egin gabe, sinagogako buruzagiari esan zion: “Ez izan beldurrik; zuk sinetsi”. Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedro, Santiago eta honen anaia Joani izan ezik. Sinagogako buruzagiaren etxera heltzean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zion: “Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskak ez dago hilda, lo dago”. Haiek barre egiten zioten. Baina Jesusek guztiak kanpora bidali zituen eta, neskaren aitamak eta berarekin etorriak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Eskutik heldu eta esan zion: “Talitha kum” (hau da: “Neskak, zuri diotsut: Jaiki zaitez”). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zion inork ere ez zezala jakin. Eta neskak jaten emateko esan zion.

Neskato, zeuri dirausut: jagi zaitez! Berarengan jartzen dan sinismenak bestela ezinezkoak diran mirariak egiten ditu.

## EZKUTUKO ZAURIAK

Jose Antonio Pagola

Ez dakigu haren izena. Emakume ezdeus bat da, Jesusen ondoren doan jendetza artean galdua. Ez da ausartu Jesusi hitz egitera; Jairok, sinagoga-buruak bestela egin du, eta Jesus bere etxera joatea lortu du. Emakumeak ez du izango sekula zori hori.

Inork ez daki zer den emakume bat, ezkutuko gaixotasunak joa. Lege-maisuek irakatsi diote, ezen har dezala bere burua emakume «*kutsatutzat*», odol-jarioa duen bitartean. Urte asko egin du sendagile baten bila, baina ezin sendatu izan du inork. Non aurki lezake duintasunez bizi ahal izateko beharrezkoa duen osasuna?

Jende askok bizi du gure artean antzeko esperientziarik. Inork ezagutzen ez duen ezkutuko zaurik apaldurik, bere «*gaixotasuna*» agertzeko kemenik gabe, laguntza, bake eta kontsolamendu bila dabil, non aurkitu ez dakiela. Errudun sentitzen du bere burua, askotan biktima huts delarik.

Jende ona: aldarean Kristo hartzera hurbiltzeko ezgai sentitzen dena; kristau jainkozaleak: modu gaixotian sufrutuz bizi izan direnak, sexuari dagokion guztia lohia, umiliagarria, bekatzukoa dela irakatsi izan zaielako; fededunak: bizitzaren azkenean, ustez sakrilego izan diren aitortzeen eta jaunartzeen kate luzea nola hautsi ezin asmatu dutenak... Ez ote dute iritsiko inoiz bake hori?

Kontakizunaren arabera, gaixo den emakumeak «*Jesusez hitz egiten entzun dio*» jendeari, eta uste du, ezen bere gorputzetik eta bizitza osotik «*kutsadura*» atera dezakeen norbaiten aurrean dela. Jesus ez da mintzo ez duintasunaz, ez duintasun-ezaz. Maitasunaz mintzo da haren mezua. Indar sendatzailea dario hari.

Bere bidea bilatu du emakumeak Jesusekin topo egiteko. Ez du kemenik Jesusi begietara begira jartzeko: atzetik hurbildu zaio. Lotsa da bere gaixotasunaz hari hitz egiteko; ezkutuka joan da harengana. Ezin ukitu du fisikoki: gainjantzia ukituko dio soilik. Ez du axola. Ez du batere axola. Bere burua garbi sentitzeko, aski du Jesusekiko konfiantza handi hori.

Jesusek berak esan dio hori. Emakume honek ez du zertan lotsatu inoren aurrean. Egin duena ez da gauza txarra. Fede-ekintza da. Bere bideak ditu Jesusek ezkutuko zauriak sendatzeko, eta bere bila dabilzanei hau esateko: «*Ene alaba, zeure fedea sendatu zaitu. Zoaz bakean eta osasunez*».